

-(e)LA ETA BESTE KONPLETIBATZAILEAK

Hondarribia, 1981-XII-29

Jose A. Mujika

1. Aurkezpena

1.1. Aditz izenkiren batez egiten diren perpauk konpletiboak (“*zuk irabaztea nahi dut*”; “*irabazi nahi dut*” etab.) alde batera utzirik, pertsonaz eta barrez jokaturiko aditza daramatenak aztertuko ditut ondoko lerroetan.

Horiek ere, ordea, ez denak. Izan ere, *nahi-agintezkoak* (“*joan dadin nahi dut*”; “*joan dadila eskatu diot*” etab.) eta *galderazkoak* (“*nor dabilen galdegin dut*”; “*inor dabilenez galdegin du*” etab.) ez ditut hemen aztergai hartuko.

Hau da, *adierazgarrien* sailera mugatuko da nere azterketa (1).

Eta adierazgarrien sail berezi horretaz aurkeztu nahi ditudan azalpenetan barrena abiatu baino lehen, beraiek osatzeko euskarak erabiltzen dituen morfemak aipatuko ditut jarraian, oraingoz, lehen aurkezpen honetan, euskararen historian beharbada gertatu diren aldaketak eta euskalkiei zor zaizkien kontutan hartu gabe, hau da, denak sistema bat eta berarena bailiran.

Morfema bakoitzeko adibideren bat edo beste emango dut, zerrenda oso eta beteagoak ondoko atal berezietarako utziz.

1. -(e)LA

(1) Ta eurac uste davee, Ainguerubac baixen garbi dagozala (B) (F. Bartolome, 183).

(1) Lan honen laburpena Euskaltzaindian irakurri nuenean, nik *deklaratibo* izentatzen nituen perpaukoi euskal deitura egokia emateko *adierazi* aditzaz ederki balia daitekeela ohartarazi zidan Mitxelena jaunak. Haren oharra aintzat hartu nuen, baina egiteko hauetan trebeegi ez naizenez zalantzaz egon naiz *adierazgarri*, *adierazpene(z)ko...* (ez adierazkor = expresivo) edo antzekoen artean zein hobetsi. Azkenean, bat behar eta, lehena aukeratu dut.

2. *Ezen/eze/ezi/ze ...-(e)LA*

(2a) Eguiaz erraiten drauçuet, ecen çuetaric batec tradituren nauela (Leizarraga, Mt 26,21).

(2b) (...) baesan eçe bere arma/çarrac ausi ta letorrela (B) (TAV 160).

(2c) Seguraçen citut eci guiçon terrible bat dela (BN) (TAV 155).

(2d) Azquenez, jaquin beôzu, ce, celaco dan vicitzeá, alacoa dala eriozteá (B) (Añibarro 83).

Egia esan, hau ez da atal berria eskatzen duen morfema berezia; aurreko morfema bera da [-(-e)LA], aurretik *ezen* partikula espletiboa daramalarik.

Ezin da, bestalde, isilean gorde badirela han eta heme *ezen* hutsaz eginiko konpletiboak edo konpletiboen antzekoak. Hala nola, besteren artean:

(2e) (...) eta egun erraten digu guri ece (...) preceditu beardute señale formidablebazuec (GN) (TVTE 383).

(2f) Jauna, nic estáquit deus onguiric nitas, solamente ezi egunóro lanerá baño lèn noáie Elizará ofrecicerá nere lánac (GN) (Lizarraga I 354).

(2g) Barri dogu ce / Angueru mila / Gure menditic / Igaro dira (B) (TAV 139).

3. *Nola/zelan ...-(e)N*

(3a) yaquin zazu nola nizen peril handitan (L) (DV 1664 535).

(3b) Adierazoten dau, celan bere borondatez, ta gurariz opa-zan Jesu Cristo Eriotzara (B) (Añibarro 102).

Hemen ere badira joera nagusitik saihesten diren testuak eta -(e)N morfemaren ordeztasunak -(e)LA konpletibatzaile nagusia hartzen dutenak, horrelako perpausen konpletibotasunari zehar bidezko froga eskainiz:

(3c) (...) eta dakusute, nola zuen aurrean galdeak eginda, zuek egozten diezuten utsegiterik arkitzen ez diodala (G) (Lardizabal 124).

(3d) Bazenkien bai, zelan (...) ezin ioan izan nintzala Galotarretara (B) (Mogel 148).

Tartasen Ontsa-n *nola...bait-* egitura duen kasu bat aurkitu dut:

(3e) (...) guri erakhusateko, nola atzodanik egündraíño, egundanik bihar-draíño, arte hura baita labür eta hertsu (Z) (Tartas 35) (2).

4. *-(e)NA*

(4) Onec autor davee, piestaac, eta erromedijac, eta biguiraac, eta saraubac chaarrac diriana (B) (F. Bartolome 195).

(2) Ikus Leizarragaren beste hau ere: (...) sendi eraci liececat, nola hura baithâ despregatu behar baitzen Iancoarê resumarê verthute eta puissanca gucia (Leizarraga 14).

5. *-(e)NIK*

(5) Ezdogu iracurten Jesucristo olgau zanic (B) (F. Bartolome 190).

6. *-(e)N + Izena*

(6a) Jesus-ek ikusiren bat emango zien uste oso-osan (G) (Lardizabal 148).

(6b) baña goseteak zekarzkienetaraño iritsiko etziran bildurrak eman zien (G) (Lardizabal 185).

(6c) eta ezertarako balio ez zuen irudipena jarri zitzaion bizitzako azken aldera (Deia, 1981.eko uztailaren 28a, 4. or.).

(6d) artu zutenean San Pablo urreratzen zitzaion albista (G) (Lardizabal 221).

Azken sail honetako menpeko perpausak berez eta estu harturik izena-
ren osagarri dira, ez aditzarekiko konpletiboak. Konpletiboen artean sartu
ditut, halere, hauekin zerikusi hertsia eta ukaezina baitute, beherago ikusiko
dugun bezala.

Hona, beraz, morfema konpletibatzaile hauen eskema:

-(e)LA	ezen eze ...-(e)LA ezi ze
	ezen eze ∅ (?) ezi ze
Nola Zelan ...-(e)N	nola zelan ...-(e)LA
	nola bait-
-(e)NA	
-(e)NIK	
-(e)N + Izena	

1.2. Morfema konpletibatzaile hauek direla eta, euskal testuetan barrena abiatzen den aztertzaile ohartuari susmo bat etor dakioke, lehenago edo beranduago, gogora. Eta ondoko irakurketa sakonagoak ez du hasierako susmo apala ezeztu eta oinarririk gabe uzten.

Honela ager daiteke susmo hori: **-(e)LA** morfemaren eta beste konpletibatzaileen erabil arauak ez dira batera maila berekoak; morfema horien erabilerak ez ditu, alegia, eremu osagarriak mugatzen eta berezten. **-(e)LA** morfema, izan ere, konpletibatzaile nagusi gisa erabiltzeko joera dago, hau da, beste konpletibatzaileak euskalkiren batean edo gehiagotan testuinguru jakinetan erabiltzen diren bitartean, **-(e)LA** testuinguru guztietan, edo gehienetan bederen, erabiltzeko joera dago. Edo, are bestela esanda, **-(e)LA** beste konpletibatzaileekin, gehienetan behintzat, truka daiteke eta haien lekuan erabil, ez ordea alderantziz.

Hitz batean esanik: beste konpletibatzaileak kasu jakinetan bakarrik erabiltzen dira; **-(e)LA**, berriz, bai horietan eta bai bestelakoetan ere.

Susmo hori testuetan, testu idatzietan hain zuzen, frogatzen eta sendotzen saiaturko naiz lan honetan eta ñabardura guztiak gogoan harturik areago zehazten eta behar den neurrian aldatzen. Hori du txosten honek helburu.

Eta horretarako konpletibatzaile guztiak banan-bana aztertuko ditut eta **-(e)LA** morfemarekin erkatuko.

2. Ezen ...-(e)LA eta -(e)LA

2.1. Konpletiboaren aurrean *ezen* partikula, bere era desberdinetan, ezartzeko joera ez da euskalki batera edo bestera mugatzen. Zabalagoa da. Sarrerako atalean L, B, eta BN euskalkietako adibideak eman ditut. Hona beste zenbait:

- (7) Baiña enzunic ezen hiltzela (L) (Axular 279).
- (8) Bada consideratubezate ece obe dela confesacea (GN) (TVTE 383).
- (9) Badio, ecen jaten-degula (G) (Larramendi 307).
- (10) (...) eta zure ametsian iduri ezi, gizon poxant bat, jaun handi bat zirela (Z) (Tartas 92).

A. Villasantek dioenez, lagunarteko bizkaieran maiz erabiltzen da gaur egun ere partikula hau. Idatzian, berriz, Iparraldeko euskalkietan baizik ez omen da erabiltzen eta horietan ere ez lehen bezain maiz (Villasante I 52). Lafittek lehengo denboretara mugatzen du partikula honen erabilera (Lafitte 400).

Hemengo testuei dagokienez, Kresalaren kasu bakarra da nik azertu ditudan testuetan azkena:

(11) Bai, izenak artu ditu, ta esan dau eze biar *dantzan* egin bearko dozuela (B) (D. Agirre 68).

2.2. Mateoren ebanjelioa aztertuz, konpletiboan *ezen* partikula Leizarragak noiz eta nola erabiltzen zuen zehatz adierazten saiatu nintzen Arrasateko Biltzarrean aurkezturiko txosten batean (Mujika 600-607).

Txosten hartan berean, eta hori da orain axolarik handien duena, *ezen* hori ezar edo utz daitekeen espletibo hutsa zela esaten nuen, aditz nagusiaren ondoko zenbait konpletiboren haseran eman daitekeen —eta ez nahitaez ezarri behar den— lagungarria zela. Bestela esanik, -(e)LA dela egiazko konpletibatzailea eta *ezen*, berriz, aukerako lagungarria, espletiboa. Edozein kasutan -(e)LA hutsa nahikoa dela.

Eta hori frogatzeko honako argumentuak ematen nituen:

a) Ebanjelioetako testu paraleloak batean espletiboaz eta bestean gabe itzultzen ditu Leizarragak:

(12a) badaquiçue udá hurbil dela (Mat 24,32).

(12b) badaquiçue ecen udá hurbil dela (Mc 13,28).

Bai griegoz eta bai frantsesez ere testu bera dator bi pasarteotan.

e) Paralelo ez izan arren, erabat berdinak diren testuak bietara ematen ditu Leizarragak euskaraz:

(13a) Baina nic erraiten drauçuet, ecen no ere...-(e)LA (Mt 5,22).

(13b) Baina nic erraiten drauçuet, Norc ere ...-(e)LA (Mt 5,28).

* * *

Orduko froga horiei, beste batzuk erantsi diezazkieket orain.

c) *Viva Jesus* dotrinaren testuok:

(14a) Cer esan guredau sinistu eiten dot Espiritu Santuegan?

Esanguredau Espiritu Santu Iaune Trinidede Santissimeco irugarren personea dala Iangoico (V. J. 90).

(14b) Cer esanguredau Pecatuen parcaciñoec?

Esanguredau esse Becatari Iancoicoagana biortn (sic) ditesanay (...), parcatuco deusteela pecatuec (V. J. 91).

d) Axularren testuok:

(15a) Badirudi haur eman nahi zuela aditzera Spiritu Sainduak berak (L) (Axular 51).

(15b) Badirudi ezen haur eman nahi zuela aditzera Spiritu Sainduak (L) (Axular 27).

(16a) Ikhusirik galduak goazilla (L) (Axular 46).

(16b) ikhusirik ezen urak hartzera zeramala (L) (Axular 142).

(16c) ikhusirik bere pena iraganez eztutela batere probetxurik (L) (Axular 389).

(16d) ikhusirik ezen bekhatu hunek, bat bedera bere adimenduan barre-na itsutzen zuela (L) (Axular 230).

(17a) zeren etzuen uste ezen erreginak halako iokorik iokatu zukeiela (L) (Axular 267).

(17b) Eztut uste presuna zaharrak, probetxu anhitz izanen duela (L) (Axular 119).

(18a) diozu ezen (...) enplegatuko ditutzula (L) (Axular 43).

(18b) diozu sinheste (...) gehiago dugula (L) (Axular 98).

e) Tartasen beste testu hauek:

(19a) eta zure ametsian iduri ezi, gizon poxant bat, jaun handi bat zirela (Z) (Tartas 92).

(19b) iduri baita, bere artian kontrario direla, eta elgarren artian, elgar ezin eguarten dütela (Z) (Tartas 101).

f) Goi nafarreraz idatziriko sermoi batzuetako testuok:

* * *

(20a) bada dio San Gregorioc, ece egorricodituela Jangoicuac preparatu gaicen Juiciora (GN) (TVTE 383).

(20b) Orgatic dio Davidec, laster eguiten duela oreñec vezala (GN) (TVTE 380).

g) Añibarroren testuok:

(21a) Azquenéz, jaquin beózu, ce, celacoa dan vicitzeá, alacoa dala eriotzeá (B) (Añibarro 83).

(21b) Onetaraco, jaquin bear dozu; mandamentu santu onen contraco becatu guztiac, diriala berez mortal, edo eriotzcoac (B) (Añibarro 135-6).

h) D. Agirrereren testuok:

(22a) (...) ta esan dau eze biar *dantzán* egin bearko dozuela (B) (D. Agirre 68).

(22b) Esan deust niri andreak berorrek ezeustala ezer ukatuko (B) (D. Agirre 162).

Gogoan hartu behar da goiko testu hori dela, *ezen ...(e)LA* egiturari dagokionez, Kresalaren kasu bakarra.

i) Aurreko atalean aurkezturiko testuek eskaintzen duten lekukotasunaren ondoan partikula honen erabilera orokorrak ematen digu hurrengo froga: *ezen* ez da subjuntiboetan erabiltzen ez eta adierazgarrietan ere ondoko kasuetan:

- konpletiboa nagusiaren aurrean doanean.
- nagusiaren ondoan joan arren:
- Nagusiak *ezen* ilatibo-kausala daramanean.
- Osagarri konposatuak galerazten duenean.
- Beste -(e)LA konpletiboaren menpeko denean.

Bestelako kasuetan erabil daitekeela dirudi.

-(e)LA soila, berriz, erraz ikus daitekeen bezala, bai kasu horietan bai bestelakoetan ere erabiltzen da.

j) Azkenik eta zehar froga baizik ez bada ere, gramatikarien iritzia eka-rriko nuke, denek era batera edo bestera *ezen* aukerakoa dela aitortzen bait dute. Hona aipamen batzuk:

Larramendik: “Estas oraciones (...) se hazen *también* con partículas correspondientes al *que* del Romance, y son *ecen, ece, ce*” (Larramendi 307).

Azpmarratua nerea da. *También* horrek aukerako egitura dela garbi adierazten du.

* * *

Villasantek: “Ax. emplea muchas veces la partícula introductoria *ezen*, aunque no siempre” (Azpimarra nerea; Villasante I 51-52).

Lafittek: “Les anciens auteurs commençaient *volontiers* par *ezen* ou *baizik-eta* les propositions subordonnées complétives en *-la*” (Azpimarra nerea; Lafitte 400).

Nabarmenago Azkuek:


“Zeren iduritzen zait *ezen* oraino bizi zarela, porque se me figura que todavía vivis (Axul. 3.^a XIII-20).

Doble extranjerismo: *zeren* (...) y *ezen* que. La locución neta es: Oraino bizi zarela iduritzen baitzait.” (Azkue 491).


Honenbestez, frogatu nahi nuena baiesteko lekukotasun-aski badagoela uste dut: *ezen* ...-(e)LA kasu batzutan erabil badaiteke (2) ere, alegia, -(e)LA soila bai horietan bai besteetan ere erabiltzen dela; azken hau dela bi egitura horietan konpletibatzaile nagusia.

(2) Edo hobe behar bada “bazitekeen” esatea.

Morfema hauen erabilera grafikoz adieraztekotan, ez litzateke honela itxuratuko



beste honetara baizik



2.3. Eraskin laburra:

horiek horrela eta jarritako helbururako esateko nuena esanik, zer esan orain *ezen* hutsaz, ondoko -(e)LA gabe alegia, ematen diren perpausez? Orduan ere espletibo hutsaren aurrean al gara? *Ezen* horrelakoetan egiazko konpletibatzailea ote?

Gramatikari gutxi hartu ditu kontuan horrelako kasuak. Lafittek, oraintsu ikusi dugun bezala, konpletiboen *ezen* partikula -(e)LA morfemarekin lotzen du (ikus aip. lek.). Villasantek ez dio ezer honetaz, baina *ex silentio* froga erabiliz, badirudi konpletiboak beti *-la* eskatzen duela suposatzen duela (ikus aip. lek.).

Mitxelenak zerbait badio:

“No hay duda posible, contra lo que piensan algunos, sobre el carácter popular, no culto, de esta partícula. Puede incluso emplearse ante palabras citadas en forma directa (...), como en este ejemplo de Ataún: *Esa ementzion ze Iru zaldi zeuzkeat nik*. ‘Dicen que le dijo que Tres caballos tengo yo’ ” (TAV 146).

Mitxelenak, beraz, horrelako perpausak ez ditu menpekotzat hartzen, “forma directa” direla bait dio. Eta itxuraz ez zaio arrazoirik falta. eskaini duen adibidean aditza mintzalaguna aipatzen duten alokutibo horietako bait dugu eta perpausa menpekoa balitz ez litzateke horrela izango. Dena den, ez da hau arazo hori sakonago aztertzeko lekua.

-(e)LA gabeko egituraren adibideak ugariak dira; ez behintzat bakan-bakanak. Ikus, esate baterako sarrerako atalean (2e), (2f) eta (2g) adibideak. Edota beste hauek:

- (23) Inok zebez aurki gero / ze aldia eldu doa
 nayde diga luego después / que el tiempo suele llegar (B) (RS 4596, 12-3).

(24) Naidiotet advertitu ece ala nola (...) ala errantedigu (sic) egungo egunean guri (GN) (TVTE 383).

(25) Gixonak esa'utzen ze, mesede eiñ berak da ia bera jango eban (B) (Barandiaran 244).

3.

Nola/zelan ...-(e)N

 eta

-(e)LA

3.1. Oso kasu bakanetan ezik, aztertzeke utzi dituzte gramatikariek *nola ...-(e)N* egitura duten konpletiboak. Lafittek bai, aipatzen du egitura hau eta ondoko adibideok ematen ditu:

(26) Erran daut nola zaldiz jina den, il m'a dit qu'il est venu à cheval (N-L) (Lafitte 395).

(27) Erran dautzu nola jendarmek kolpaturik bildu duten, il vous a dit que (litt.: comment) les gendarmes l'ont trouvé couvert de blessures (N-L) (Lafitte 448).

Altunak, bere aldetik, Etxeparerengan aurkitu dituen kasuak aipatzen ditu (Altuna I 176). Eta neronek ere Leizarragaren Mateo ebanjelioan aurkituriko kasu batzuk aurkezten ditut gorago aipaturiko artikuluan (Mujika 612-4) (4).

3.2. Konpletibo mota hau ere ez da euskalki batera edo bestera mugatzen. Sarrerako atalean aipaturiko kasuak (L, BN, B) gutxi ez direla, erraz luza daiteke testuen zerrenda:

(28) izánze S. Gabriel Aingerua Jangoicoac bialiric anunciatzerá nola bearzan izán Jangoicoen Ama (GN) (Lizarraga II 218).

J. M. Satrústegui-k, testua argitaratu duenak, honako itzulpena eman dio: fue el arcángel San Gabriel, enviado por Dios a anunciar que iba a ser Madre de Dios (ibid.).

(29) Emausko bi ayek gero bereala zeero esan zieten bidean igaroa, eta nola Jesus ogia ebakitzean ezagutu zuten (G) (Lardizabal, 149).

(30) sogizu nola Apostoliak, loa, eta herioa biak baten hartzen dütian (Z) (Tartas 68) (5).

Zenbaitetan, egia da, eztabaidagarri gerta daiteke, testu idatzietan batez ere, perpaus bat zehar galderen sailean ala adierazgarrienean sartu behar den

(4) F. Altunak esan didanez Lafon-ek ere aipatzen ditu lanen batean edo bestean.

(5) Euskalkietan ezezik, denboran ere nahiko zabaltzen dira egitura honen lekukoak. Ikus, dagoeneko, XVI mendean Etxepareren eta Leizarragaren kasu ez bakanak. Edota 1609.eko Iruñeko poesian irakur daitekeen hau: (...) oroyt caite / Nola bertce ortçegunean / Onen artean eman çuen / Gaysto bati oguian. (TAV 115). Eta hortik aurrera, noski, noiznahi.

erabakitzea, hots, gertakariren batez ala beronen nolakotasunaz ari den zehatz mugatzea. Antzeko zerbait gertatzen da zenbait izenekin: *-era* atzizkia daramatenekin esate baterako, honek “manera” eta “acto” adieraz bait ditza-ke (Villasante II, 71).

3.3. Lan honen helburuari jarraikiz, *-(e)LA* atzizkia konpletibatzaile nagusi dela frogatu behar dut eta, beraz, *nola ...-(e)N* azaltzen den testuetan eta testuinguruetan *-(e)LA* ere ager daitekeela, nahiz eta alderantziz gauza bera ez gertatu. Hona, bada, froga edo bederen frogabide zenbait:

a) Hasteko, aztergai ditugun bi konpletibo motak koordinaturik edo iustapuzioan ematen dituzten zenbait testu aipatuko ditut:

(31) Profeta sagraduak eskribidu eben,
Nola zan Jaun andi bat jaioko Belenen;
Bera zala izango Salbadorea,
Desegindu egian gure kulpea. (B) (TZ 19) (6).

(31b) Eta aditu zutenean, Kornelio bere aide eta adiskideakin Zesarea-n batayatua izan zala, eta nola San Pedrok-k erabaki zuen, Gentillak ere kristautzara artu zitezkeela (...) (G) (Lardizabal 183).

(32) Iakin eragin bearke iako, zelan bere *soldau* zar ta berriak ez tirean aspertu ez aseten (...). Emen bakarrik bilatuten dala eriotzea emotea (...) (B) (Mogel 151).

(33) Bai; esaiozu nola arrapatu nai izan zenduan, baña iges egiñ zizula (G) (Urruzuno I 105).

* * *

Testu hauetako bakoitzean bi konpletibo desberdinek aditz nagusi bera dute, lehen testukoek *aditu*, bigarrenen *iakin eragin* eta hirugarrenen *esan*. Konpletiboen lekua, joskerari dagokionez ere (galdegaiari etab.), bera da. Honek zera esan nahi du nere ustetan: aditz horiekin eta leku honetan *nola ...-(e)N* bezala *-(e)LA* ere erabil daitekeela eta ez aditzaren esanahiak ez joskerak ez dutela *-(e)LA* erabat galeraziz *nola ...-(e)N* derrigor eskatzen.

b) Azalpen berbera dator gogora Leizarragaren ondoko testu paralelook irakurrita:

(34a) Encun ukan duçue ecen lehenagoçoey erran ican cayela (Leizarraga MT 5, 27,33).

(34b) Encun ukan ducue nola erraniçâ içâ çayê lehenagoçoey (Leizarraga Mt 5,21).

Gogoan har bi perpaus horiek testu beraren itzulpen direla. *Ezen* partikula agertzeak ez luke eragozpenik sortu behar, aurreko atalean espletibo hutsa dela frogatu bait dugu.

(6) Barrutiaren Acto para la Noche Buena-tik jasoa.

c) Erabat paralelo ez badira ere, aski hurbilak dira ondoko testuak eta gure xederako baliagarriak:

(35a) Gomuterazoten dau, celan, Cristo gueure Jaunac garbitu cituan bere Icasleen oñac (B) (Añibarro 105).

(35b) Gomuta zaitzeze zeuen eskumeetan daroazuezala ondasunak ugari (B) (Mogel 148).

Edota idazle bakar eta berarenak:

(36a) Daracuzcu, celan becatar(i) asco jatsi-cirian Calvario(r)ic (B) (Añibarro 117).

(36b) Bascust enasala, ezpada lurreco ar zantar billau prestuez bat (B) (Añibarro 120).

(37a) (...) erakhustera eman Ephestion zenbat maite zian, eta nola bere büria bezanbat estimatzen zian (Z) (Tartas 111).

(37b) Baina Jesús gure Jaunak erakhustera eman dü bere pasionian, bere büria bezanbat, eta gehiago maite güntiala (Z) (Tartas 111).

d) Azkenik, froga-frogatzat hartu ezin bada ere esandakoa sendotzera datorren zerbait aipatuko dut: *nola ...-(e)LA* egitura duten perpausak.

* * *

Egitura horretako perpausak ugari ez badira ere, ez dira ezta kasu bakan-bakanak. Sarreran aipatukoez beste (G, B), ikus:

(38) Geruanen jakiñ neban zelan soldautzie etorri eran Apirka'ko toka-mena eldu jakola (B) (Arrizabalaga 51).

(39) Da laster hedatzen / Berria, nola zezen bat orai gudukatua izanen / Zelhaian dela (L) (Borda 502).

(40) Nafarroako historian (...) edireten da, nola Charles Duc de Bourbon, prinze handi batek (...) gerla denbora lüzez bere erregeari eta bere erresumari egin ziala (Z) (Tartas 21).

Egitura honen azalpenak erraza dirudi. Bi egiturak, aztertzen ari garen biek hain zuzen, topo egin dute eta bien artean osaturiko egitura nahasia eman (7).

Perpaua, *nola ...-(e)N* egituraz hasi, gero aldatu eta -(e)LA egiturara jotzeak lerro hauen tesia frogatu besterik ez du egiten, egitura hura erabil daitekeen testuinguruetan beste hau ere erabil daitekeela alegia, hura dagoen lekuan hau ere eman daitekeela, alderantzizkoa egia ez bada ere.

(7) Aukeratu dudan helburutik at geratzen denez, ez naiz hemen noski egitura hori gramatikala denentz aztertzen hasiko.

3.4. Eraskin laburrak:

txosten honen xede nagusiaren inguruan esateko nuena esan ondoan, *nola ...-(e)N* konpletibatzailea dela eta, bi eraskin labur aurkeztu nahi nituzke azkenik: konpletibatzaile horren erabiltze mugez lehena eta itxura berdineko galderaz berezten denez bestea.

3.4.1. *Nola ...-(e)N* konpletibatzailea noiz erabil daitekeen arau semantikoek agintzen dute. Edozein aditz nagusik ez dezake horrelako konpletiborik eraman: uste-eritzi-irudizkoek, adibidez, ez dute onartzen. Jaso ditudan testuetan honako aditz nagusiak ageri dira: ikusi, begiratu, so egin, kontenplatu, erakutsi; entzun, aditu, adierazo, aditzera eman; esan, deklaratu, predikatu, anuntziatu, adbertitu; ikasi, irakatsi; irakurri; jakin, ezagutu, ohartu; pentsatu, kontsideratu; oroitu, gomutatu, gogoratu, gogoan eduki; testifikatu, testigo (izan), aboatu, sinetsi; miraz egon, senditu; berria hedatu, jazoera aitatu; ediren; (horra...).

Eta aditz horiek adiera desberdinak dituztenean, egitura honekin konpletiboaren egia suposatzen denean erabiltzen dira, ez bestela. "Pentsatu", esate baterako, bi adieratan erabil daiteke: (A) pentsatu = imajinatu; (B) pentsatu = kontutan hartu. Hona neronek asmatutiko bi adibide:

(41a) Pentsa ezazu XVI mendean gaudela (A).

(41b) Pentsa ezazu egunak 24 ordu baizik ez dituela (B).

* * *

Nola ...-(e)N konpletibatzailea bigarren kasuan baizik ez da erabiltzen, hau da, konpletiboaren egia presuposatzen denean baizik:

(42a) Pentsa ezazu nola XVI mendean gauden (A).

(42b) Pentsa ezazu nola egunak 24 ordu baizik ez duen (B).

Ikus, esate baterako, testu hau:

(43) *Lembicico Misterio Gloriosoan* pentsatzen da, nola irur garren egunean ilqui cen Jesus glorios (GN) (Adoingo Esteban 300).

Eta beste honekin erka:

(44) Irur garen *Misterioan* contemplatzen da, nola Jesucristoc igorri zuen Izpiritu Saindua Mendecoste egunean (GN) (Adoingo Esteban 301).

"Pentsatu", beraz, gertatuzat ematen den zerbait "kontenplazeari" esaten zaio testu horretan, ez zerbait "usteari" edo "imajinatzeari".

Ondoko testuok agertzen dute ederki hau dena:

(45) Isten ditut bada aitatu baga *iazoera* zarregiak, zelan Q. Servilio Ahalk il eban bere eskuz Sp. Melio (B) Mogel (153; azpimarra nere).

(46) Da laster hedatzen / *Berría*, nola zezen bat orai gudukatua izanen / Zelhaian dela (L) (Borda 502; azpimarra nereá).

(47) *Testigo* concienciá nola, bacarric daudelaic ere datorzquioten gogoracio gaichstoac (GN) (Lizarraga II 222; azpimarra nereá).


Konpletibo mota honen bidez “jazoerak”, “berriak” eta “testifika” daitezkeen gertakariak ematen dira aditzera. Horregatik agertzen zaigu horren maiz eta ugari *nola ...-(e)N* egitura testu narratiboetan (“kontatu zigun nola...”), gertakaria ez diren bestelako egiak ere emateko erabiltzen den arren.

Inguruko erderetan berdintsu gertatzen dela dirudi. Ikus, adibidez, M. Grevissek *comme quoi* konpletiboez ematen dituen adibideak (Grevisse 1034-5):


(48) Vous savez COMME QUOI je vous suis tout acquise.

(49) Quand Germain raconta COMME QUOI il avait été forcé de ramener la petite Marie.

Labur bilduz, beraz, hau esan daiteke: *nola ...-(e)N* egitura, konpletiboaren egia presuposatuz horri buruz zerbait esaten denean erabiltzen da; -(e)LA, berriz, bai horrelakoetan bai bestelakoetan. Grafikoz adieraztekoan, hemen ere, bide zuzena ez litzateke hau:



beste hau baizik:



Bi egituren arteko aldea, behar bada, ñabardura honetan dago: *nola...-(e)N* egiturak egiaren presuposizioa markatu egiten du berez eta ezin bestean; -(e)LA morfemak berriz alderdi hori markatu gabe uzten du, ñabardura horrekiko neutroa bait da.

3.4.2. Azken arazo bat atal honi amaiera eman aurretik: nola berezten dira, batere berezten badira behintzat, *nola ...-(e)N* zehar galdera eta *nola ...-(e)N* konpletiboa?

F. Altunak dioenez, Etxeparek oso zehatz berezten ditu bi perpaus mota horiek, aditza perifrastikoa denean behintzat: konpletiboez adizki laguntzaila nagusiaren aurretik daramate (*nola duyen eguin*); galderek alderantziz.

Idazle gehienetan, ordea, ez da horrelakorik somatzen (8).

(8) Ikus, haatik, gorago aipatu dudán Barrutiaren testua.

Neure eta neure inguruko en euskara ustez behintzat arretaz aztertu ondoan, susmo apal bat aurkeztera ausartzen naiz, ondo jakinik noski hori besterik ez dela, hots, sendotu bezala deuseztu ere egin daitekeen ustea.

a) Gure euskaran, batetik, zehar galderan aditza ondo-ondotik jarraikitzen zaio *nola* galdekariari:

(50a) Badakit nola ibili zinen Donostian.

(50b)* Badakit nola Donostian ibili zinen (zehar galdera bezala ez gramatikala).

Konpletiboa, berriz, lasaiagoa da horretan.

Idazle zaharren kasuan, egia da, iritzi horrek ez du balio handirik, ez bait dira horren estuak galderaren ordenari dagokionez.

* * *

b) Bigarren aldea gure euskaran —eta “gure” diodanean Donostia aldean normalean entzuten dudana ari naiz—, oso oker ez banago, prosodian gertatzen da: zehar galdera eta konpletiboa ez dira erabat berdin esaten. Zehar galdera etenik gabe ematen da eta konpletiboetan —zenbaitetan behintzat— *nola*-ren ondoan pausa edo eten moduko bat egin da. Eta menpeko aditzaren azentua ere, behar bada, diferente ematen da:

(51a) Esan digu nola erori dèn (galdera: zer gisaz erori den).

(51b) Esan digu nola / erori dèn (konpletiboa: erori dela).

Ez dakit bigarren kasuko etena beti ematen denentz. Susmoa dut, ordea, lehen kasuan, enfasi berezietan edo ez bada behintzat, erabat ezina dela, konpletiboetan gertakizun den bitartean.

Eten hori ez da derrigor *nola*-ren ondo-ondoan ematen. Honen ondotik eta etenaren aurretik beste elementuren batzu ere sar daitezke, galdegaia eta aditza etenaren ondotik doazelarik: “Kontatu zigun nola atzo Mikel / basoan galdu zen”; “kontatu zigun nola atzo Mikel basoan / galdu egin zen”.

Horren arrazoia hau da behar bada: zehar galderan, *nola* egiatzko galdekaria da eta perpausaren itxura prosodikoa aldatu egiten du. Konpletiboan, berriz, ez dago egiatzko galdekaririk eta perpausak adierazgarriaren itxura prosodikoa —galdegaiaren aurreko etena etab.— gorde egiten du.

Dena den, guretik at eta gurean ere, bestelako egiturak ere eman daitezkeela garbi dago. Hona, esate baterako, Lekuonak aipatzen duen Txirritaren hau: “Ta pozik nago ikusirikan pakean nola gabiltzan” (Lekuona II 140).

4. -(e)NA eta -(e)LA

4.1. -(e)NA konpletibatzailea ez zaie noski oharkabean pasa gramatikari. Gramatika asko morfema hori erabiltzen ez duten euskalkietan eginak

direnez, ordea, ez da luzeegia ez beteegia morfema horren gorabeherak batera edo bestera aztertu dutenen zerrenda.

Labur bilduz, hona batez ere bizkaieraz erabiltzen den -(e)NA morfemaz agertu izan diren eritzi batzuk:

– Morfema hau “saber, asegurar, negar, creer, conocer, ver, decir” eta antzeko aditzekin erabiltzen da eta “el hecho de que” esan nahi du (Azkue II, 66).

– “De este afijo inquisitivo *n* se originan *na* y *nik* significando ‘que’: el primero en afirmaciones; en casos no afirmativos el segundo. Son elementos que se oyen principalmente en B, en Goierí de G y hasta en el Roncal. Se usan con verbos de juicio como “saber, asegurar, negar, creer, conocer, ver, decir” (Azkue I, 373).

– Konpletiboa galdegai ez denean erabiltzen da -(e)NA. Badira, halere, salbuespenak: galdegai ez izanik ere zenbaitetan -(e)LA erabiltzen da, konpletiboaren egia suposatzen ez denean hain zuzen (Altube 120-1).

– Konpletiboa galdegai ez denean beti -(e)NA, bestela beti -(e)LA: arau hau bizkaieraz “ondo atxikitzen” omen da (Txillardegi 396).

– Konpletiboa mintzagai denean, -(e)NA morfemaz ematen da (Altuna II, 10,12).

* * *

4.2. Hasteko, berriro zera esan behar da, morfema hau ez dela euskalki denetan erabiltzen. Izan ere, bizkaierara mugatzen dela esan daiteke.

Egia da erronkarieraz testu batean ere dokumentaturik dagoela:

(52) Artaz ekustan dud antzintan diona uskarazko lan andi damanean (R) (Azkue II, 66).

eta bazterrak erdigunearen aurka bat egiten dutenean euskararen historiarako oso gogoan hartzeoak direla.

Egia da orobat gipuzkeraz ere han-hemen erabiltzen dela, bertsolarien ahotan adibidez inoiz entzun daitekeela —batez ere punturako baliagarri denean— eta zenbait idazleren lanetan ere, Iztuetarenetan adibidez, irakur daitekeela. Azkuek Iztuetaren eta Lardizabalen kasuak aipatzen ditu (9). Nik, egia esan, azkenaren *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia*-n ez dut horrelakorik ikusi. D. Manuel Lekuonaren lanetan ere maiz irakur daiteke morfema hori (10).

(9) “Lardizabal e Iztueta, hijos de Goierí (G), traen varios ejemplos de este *na*” (Azkue I, 373).

(10) D. Manuel Lekuonaren kasua, ordea, aski berezia agertzen zaigu zenbait aldetatik. Batetik, badirudi -(e)NA morfema erabiltzeko joera ez datorkiola etxean ikasi zuen euskalkitik, gizon “ikasia” izanik geroztik hartu zuela alegia. Bigarren, bizkaierazko testuetan ez bezala,

Bi datu horiek, ordea, ez dute egoera gehiegi aldatzen: lehenak hipotesiei, ez besteri, ematen bait die bide; eta bigarrenak, berriz, morfema hori bakanago edo bederen ez modu erabat iraunkorrez gertatzen denez, gipuzkeraz inoiz ere beharrezko ez dela garbiro adierazten du, hots, gehienaz ere zenbait kasutan eta eskualdetan, aukerako eta ez areago dela (11).

4.3. Horiek horrela, gatozen lan honetan axola zaigun puntura: -(e)NA morfemak ba ote du, bizkaieraz noski, -(e)LA morfemak galerazia duen eremu propiorik ala orain arteko konpletibatzaileez esandakoa esan behar ote da honetaz ere, hau da, -(e)NA morfema kasu berezietan erabil daitekeela eta -(e)LA berriz bai horietan bai bestelakoetan ere erabiltzen dela?

* * *

Azken honen aldeko froga edo froga usteko zenbait aurkeztuko dut ondoko lerroetan lan honen tesi nagusiaren ildotik:

a) Ondoko testuetako bakoitzean bizpahiru konpletibo ditugu koordinaturik eta —hauxe da benetan ohargarri— aditz beraren pean eta joskeraz den bezanbatean leku bereberean dauden arren, batzuk -(e)NA morfema hartzen dute, besteek -(e)LA hartzen dutelarik (12).

(53) Baquijee cristandadeco Aguintari Jaunac, lecuban lecuban dagozana nasaijac, Jaungoicuaren bildur bagacuac (...); ta asco izan arren ceruraco deitubac, guichi izango diriala ceruracuac (F. Bartolome 149).

Testu honetan hau da konpletiboen ordena: *jakin...-(e)NA eta...-(e)LA*. Ondokoa alderantziz da:

(54) Ezda errez sinistuten, Sacerdote Jaunac, ta religiosuac, eureen estadu santubagaz aaztuta (...) saraubeetan dantzan eguiten daveela. Ta ezda, orraco, esandirian, piestetara, ta erromedijeetara, juanda, guizon, ta emacumeen artian, nesca, ta mutilen artian naastian sartuta, olgheetan ibiltzen diriana bere (F. Bartolome 168).

Ondoko testuan, berriz, konpletiboen katea luzatu egiten da: *jakin...-(e)NA ta -(e)NA; Baita...-(e)LA ta -(e)LA*:

(55) Baita da eguija (...) Ondo daquijeela (...) eurai bere sarritan, edo gueijeeñian, edo beti esan deutseezana, ta eguin deutseezana pecatu zatar, loi areec guztiac. Baita: ez guichitan, ez bada gueijeeñian, ta gueijeenac beti, eurac bere

irudi, uste eta antzeko aditzen ondoan ere erabiltzen du. Hirugarrena, kontestu beretan edo beretsutan -(e)LA nahiz -(e)NA erabiltzeko joera beste idazleengan baino nabarmenagoa du Azkenik, D. Manuelen obra oso-oso irakurri ez badut ere eta datu berrien aurrean eritzia aldatzeko prest nagoela garbi utzirik, hau esatera ausartzen naiz: inoiz (1960. urte arte edo) morfema hori maiz erabiltzen bazuen ere, ondoren joera hori moteltzen joan zaiola ia erabat itzali arte. Guzti honek D. Manuelen lekukotasuna *cum mica salis* hartzera bultzatzen gaitu noski.

(11) Testu idatzen arabera beraz ez luke inork Mitxelenarena ukatuko: morfema horren erabilera euskalkiz mugatua dela alegia (TAV 99-100).

(12) F. Bartolomerak Altunak ere aipatu ditu (Altuna II, 8).

esan ditubeela loiquerija areec; ta besteen esanagaz, ta eguinagaz barre eguin-da alegrau diriala (F. Bartolome 99-100-101).

XVIII mendeko *Gabon Sariak* delakoan honako testu hau irakur deza-kegu (...-(e)NA jakin ta...-(e)LA):

- (56) Artzaitzat zendozena
Aintziña gengian,
Lenagoko gizonai
Maiz aditurikan:
Ta aiñ maite artaldea
Izango dezula,
Non ta azkenik bizitza
Kastauko zaitzula (TZ 67).

Eta hona, azkenik, D. Manuel Lekuonaren testu hau (*aitortu...-(e)NA, -(e)LA...*):

(57) (...) zenbait Buruzagiren aotan Livio'k ipintzen dituan itzaldi ele-ganteak, guztiok aitortzen dute baita "historia jator" ez dirana, ez dirala Buruzagi ayek esan bezelakoak; gerraz geroztiko "buruzko sorkariak" dirala (Lekuona I, 1, 128) (13).

* * *

Testuok patxadaz irakurrita, oker ez banago, zenbait ondorio zehatz atera daiteke: a) aditz nagusia honakoa edo holakoa izateak ez du nahitaez ete derrigor -(e)NA morfema eskatzen; goiko testuetan ageri diren *jakin*, *sinetsi* eta *aitortu* aditzek bai -(e)NA bai -(e)LA erabiltzen dute; b) konpleti-boa galdegai izan edo ez izatetik ere ez dator -(e)NA derrigor erabili beharra; goiko testuetan, oso oker ez banago behintzat, leku berbera betetzen dute galdegaitasunari dagokionez -(e)LA zein -(e)NA konpletiboek; c) konpletiboaren egiarekiko jarrerak ("*el hecho de que...*") ere ez du derrigor -(e)NA eskatzen; goiko testu bakoitzeko konpletibo guztiek egiarekiko jarrera bera, presuposa-keta bera, dutela dirudi eta, halere, batean -(e)LA eta bestean -(e)NA darabil-te.

Mintzagaiari dagokionez gauzak ez daude hain argi. Batetik mintzagai-tasunaren gorabehera zehatzago aztertu beharra dago. Bestalde oso zail ger-tatzen zaigu puntu mehe hau (54), (55), (56) eta (57) testuetan bereztea. Testu horietako bakoitzean -(e)NA konpletiboa mintzagai ote eta (e)LA konpleti-boa ez? Hori esateak testuak gehiegi behartzea dirudi. Konpletiboa mintzagai izanik ere, beraz, badirudi -(e)LA nahiz (e)NA erabil daitekeela.

b) Bigarren froga gisa autore bat eta beraren testu paralelo zenbait —edota paralelo antzekoak— ekarriko ditut:

(13) Hauen ondoan aipa daiteke, behar bada, oso ondo aztertzen ez dakidan Iztuetaren testu hau ere: Aurra maitea, zerorrec daquizuna da / gauzarican oberena dala guizona; / indarrac berac dituana, / ba daquizu bada nai izateco dana (Iztueta 112).

F. Bartolomerenak:

(58a) Gauza jaquina da, gentilac edocein izate artuten eveena Jaungoicotzat (F. Bartolome 140).

(58b) Bada gauza jaquina da, guraso, ta ume ascoren arteco baque chaarrac, asarriac, bidauac, ta, eurac esan oidaveen legueez, impnucuen vizitzia echian diriala piesta madaricatubac gaiti (F. Bartolome 58).

(59a) Baina olgau biar dana; edo, gaztiac olgau biar daveena, ez deuscu inoc eracusten (F. Bartolome 189-190).

(59b) Bacocha bere laneetan cansauta dagueaniam, pusca baten jocuan olgueetia, berez pecatu dala, ez dau inoc esaten (F. Bartolome 29).

* * *

J. A. Mogelenak:

(60a) Nik eztakit, baiña bai zeu aitatuten zaituana, ta Deabrua baiño gaizto gogorragotzat zaukazana (Mogel 32).

(60b) Nik eztakit erdaldunen barririk, baina bai zapatearen izena euskalerrietakoa dala (Mogel 59).

Añibarrorenak:

(61a) Arguiro dázaüt, condenáuco nasana, onduten ezpanas (Añibarro 53).

(61b) Bazaut, guztiz esainduri, loituric, beartsuric, ta gaisoric nagoala (Añibarro 159) (14).

D. Agirrerrenak:

(62a) (...) badakit Gipuzkoako izkuntzearen utsuneak billatuko ditudana (D. Agirre 10).

(62b) Nik badakit irakurleak eurak daukezela erru andiak (...) irakurle-rik geienak erbesteko izkira-legeai lotuegiak dagozala... (D. Agirre 11) (15).

(14) Iztuetaren hauek ere erantsi daitezke:

Badaquit ona ez dana nic jocalarie (Iztueta 164)

Paulo Urribarrico / gogoangarria / badaquit ceradela euscaldun garbia (Iztueta 73)

Eta:

(...) zu penaturican icustea / ba daquizu dala neretzaco iltzea (Iztueta 110)

(...) / ba daquizu dirana / zure gazte-lagunac (Iztueta 114).

Eta:

Dendari abilla ta / Arotz jaquintsuna / Badaquigu Errira / Etorri zaizcuna (Iztueta 138)

Villafranca-co erri / prrestu ta leyala / ba daquigu guztioc / Guipuzcoan dala (Iztueta 135).

(15) Konpletibo luzeetan nahiz konpletibo kate luzeetan -(e)NA baztertuz -(e)LA morfemaren aldeko joera sala dezakete adibideok. Puntu honec, halere, azterketa patxadatsuagoa merezi luke.

(63a) Danok dakigu eskari batetik bestera ezbardintasan andia egoten dana (D. Agirre 19).

(63b) Danok dakigu iru eratako izketea egiten deusagula euskaldunak elkarri (D. Agirre 12).

(64a) Ezagun da bai argizari jaleok ni lez *estranjerian* ibilli eztirana (D. Agirre 132).

(64b) Ezagun zan, urriñetik be, erri txikiren bateko ezkonbarriak zireala (D. Agirre 201).

Urruzunorenak:

(65a) Ezagun da, seme, gaztea zerana (Urruzuno I, 103).

(65b) Ezagun da lantzetaz erdi-erdian jo dedela (Urruzuno II, 76).

(66a) Banekien oetik ziñana (Urruzuno I, 42).

(66b) Badakit gizon ondraduak zeratela (Urruzuno I, 17).

(67a) Egia da, zaldi bat ostu dezuna? (Urruzuno I, 87).

(67b) Pekatu egiñ eta anima / sarri dedala zikundu, / egia da (Urruzuno I, 128).

* * *

F. Bilbaorenak (16):

(68a) Nik badakit nire irakurle guztiei begi-begiko jakezana zangurru ta karramaru egosiak (Bilbao 239).

(68b) Nik badakit otso-kontuak bildur emoten deusiela nire irakurleei, batez be ume diranei (Bilbao 53).

(69a) Baekian berak, nahiz gero, ardura asko barik be, Garbineri hazur bedeinkatua atarako eutsona (Bilbao 228).

(69b) Baekian txarrean hasten bazan, ez ebalu esku-oinokaz gauza onik izango (Bilbao 208).

(70a) Ez dakit nik zein herritan bizi zirean. Bizkaian bizi zireana bai (Bilbao 263-4).

(70b) Nik ez dakit. Baina (...) batak eta besteak bizimodu hobea izan ebela, hori badakit, bai (Bilbao 29).

(71a) Zihur nago arrazoia emongo deustana (Bilbao 49).

(16) Morgako F. Bilbaok 1954.ean idatzi zuen bere ipuin bilduma eta 1973.ean argitara eman. Honek, Markinako J. J. Arrizabalagak ez bezala, aski maiz darabil -(e)NA morfema konpletibatzailea. Oker zenbatu ez badut, hona zenbat aldiz eta zein aditzekin erabiltzen duen: *jakin* 18 aldiz; *zihur egon* 3; *esan* 1; *egia izan* 1; *ezagun izan*. Eta erabilera ugari honek esan-guratsuago egiten ditu goian aipaturiko testu paralelo antzekoak.

(71b) Eta ia zihur nago ez direala buru bagako (Bilbao 73).

(72a) Zihur-zihur nago San Pedrok hurrengo kerizak horrenbeste kosta barik jan ebazana (Bilbao 113).

(72b) Eta zihur-zihur nago harek ez eukala ez emazterik ez emaztegarik be (Bilbao 80).

M. Lekuonaren lanetan zernahi aditzen inguruan bil daiteke adibide franko (17):

(73a) Eta esan-bearrik eztago olako zatiak geiago ta geiagotu litezkeana nai izan ezkerro (Lekuona III, XXIX).

(73b) Esan bearrik ez dago, azkar asko uxatu ta aienatu zirala Teatro guzitik tristezi-aireak (Lekuona II, 142).

(74a) Ez al-dakizu, ba, ni aztie naizena? (Lekuona II, 38).

(74b) Ez al-dakizu Artxintxar, gezurti aundi bat besterik ez dala? (Lekuona II, 42).

(75a) Uste nuan ba nik, oraindik ere Kayet zure gustukoa zana (Lekuona II, 62).

(75b) Uste nuan illobarekin aterea ziñala (Lekuona II, 91).

(76a) Ba'dirudi oso-oso etzerana ere (Lekuona II, 94).

(76b) Ba dirudi, kanta ortan zernai esaten dala (Lekuona I, 57).

* * *

Bigarren froga honen ondorioek lehenean ateratakoak sendotu eta indartu besterik ez dute egiten: ez aditz nagusiak, ez galdegai izateak, ez egiaren suposaketak ez dute derrigor -(e)NA konpletiboa eskatzen.

Eta mintzagaitasunari buruz zer esan? (67b) testua, adibidez, bertso sail luze bateko bigarrena da eta lehenak dienez ari da, hots, konpletiboak dirudi perpausaren mintzagaia eta halere -(e)LA darabil, ez -(e)NA. (62a) eta (62b) berdintsuak dirudite mintzagaitasunaren aldetik eta orobat (63a) eta (63b).

Bada ordea testu zerrenda honen inguruan azpimarratu nahi nukeen zerbait: adibide paralelo edo paralelo-antzekoen kopuru handia. Izan ere, -(e)NA morfema erabiltzen duten idazle denek —nik aztertu ditudanek bai behintzat— -(e)LA ere erabiltzen dute kontestu beretan edo, bederen, beretsutan. Idazleotan bitariko adibideak ditugu (18). Non gelditzen da, beraz, -(e)LA eta -(e)NA

(17) Gorago esan dudanez Lekuonarenak ez dirudi -(e)NA morfemaren erabileraz lekutasunik fidagarriena. Halere, erabilera bikoitz honetan besteekin bat datorrenez, haren lanetan dozenaka ageri diren adibideetatik zenbait jaso ditut hemen. Gehiago ere aipa zitekeen: II 70 - III XX; II 111 - I,121; II 142 - I 76; II 14 - II 46; II 117 - II 139; I 120 - I 85; III XIV - III XI; III XVI - I 91 etab.

(18) Eta ez da zilegi era batekoak nabarmenagotzeko bestelakoak isiltzea.

morfemen arteko aldea, galdegaitasunaren arabera, bizkaieraz “ondo atxiki-tzen” dutelako hura?

c) Leku-aldiez urrunago gertatzen diren adibideak ugari dira, baina berauen froga indarra oso handia ez denez ez ditut hemen zerrendatuko (19). Bizpahiru adibide emango ditut bakarrik, eman daitezkeen beste askoren eredu:

(77a) Baquit orain ondo il bear dodana (XVII mend. oler. 63).

(77b) Baquit gura eztozula becateria galdu dedin (Añibarro 147).

(78a) Vaquicu zurea orain gustiau nasana (XVII mena. oler. 64).

(78b) Badakizu gatx luzeak asko daroala (Mogel 48).

(79a) Ondo daquijeela (...) luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau, ta gueijago icusico daveena (F. Bartolome 100).

(79b) Markiñarrak (...) ondo baiño obeto dakigu saniau leikezela onek ur ikusgarrixok (Arrizabalaga 125).

(80a) Berrogei ez, baiña ogetaamar urtetik gora, bai izen leikez eta izen be izengo die, arek “kartilla” umienak, janari eta edari eratzeko ipiñi ziena (Arrizabalaga 62; ikus, baitare, 127).

(80b) Denporatxua da gure familiko bi hil ebazala (Bilbao 284) etab.

* * *


d) Bada frogatu nahi dudanaren lagungarri baizik ez den beste zerbait ere eta azkena aipatzen dudan arren ez da, behar bada, frogen artean ez ahulena ez azkena. Idazleen artean —idatziez ari bait naiz—, eta lehen begiradan bederen jakinaren ganean bilaturiko estilo hutsari egotzi ezin dakizkiolarik, alde nabarmenak daude -(e)NA morfemaren erabilerari dagokionez. F. Bartolomek, esate baterako, aski maiz darabil (*Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatzozpinduba* liburuan berrogei bat aldiz); Añibarrok gutxiagotan; J. A. Mogelek, berriz, ia inoiz ez (*Peru Abarka*-n behin edo beste baizik ez, nik irakurri dudan testua Mogelen orijinalari zuzen jarraiki bazaio behintzat). Eta F. Bartolome eta J. A. Mogel, edozeinek dakienez, leku-aldi beretsukoak dira.

Gure egunotako bi obra ere erkatu ditut: J. J. Arrizabalagarena bat eta F. Bilbaorena bestea (1). Markinarrak ez du inoiz, gorago aipaturiko testuetan ezik, erabiltzen. F. Bilbao morgarrak, berriz, nahiko maiz darabil.

e) Gauzak horrela, honako ondoriora iritsi gaitetzkeela uste dut: Nik aztertu ditudan testuetan, hots, batez ere joan den mendearen hasieratik honako testuetan, -(e)NA konpletiboa kasu jakin batzutan eta behar bada

(19) Ikus bibliografian.

zerbait markatzeko (20) erabiltzea *aukerakoa* dutela bizkaieraz, ez derrigorrezkoa, eta hizkuntzak eskaintzen duen aukera honetaz maizago edo bakanago baliatzea norberaren joeraren eremuan sartzen dela, subeuskalkiek eta bariatateek ere, behar bada, eragina dutelarik. Grafikoa beraz, hemen ere, honakoa litzateke:



4.4. Eta lan honen xedeari zuzenean zegokiona ahal izan dudan bezala aipatu eta agertu ondoan, *excursus* labur batzuk egin nahi nituzke hemen ere, erabiliriko gaiaren inguruko arazo zenbait aipatzeko.

4.4.1. Lehenean, Txillardegik -(e)NA eta -(e)LA morfemen erabiltze arauez dioena aztertuko dut. Txillardegik dioena, labur bilduz, hau da:

“Bizkaieraz bederen (baina Gipuzkoan ere maiz entzuna) ongi atxikitzen da *-na* = *-la* liferentzia” (Txillardegi 396). Eta zein da diferentzia? Hona: baiezko konpletiboa perpaus nagusiaren galdegaia denean *-la* morfema erabiltzen omen da; galdegai ez denean, berriz, beti *-na*.

* * *

Gorago eman ditudan konpletibo koordinatuak, testu paraleloak, idazle askorengan soma daitekeen -(e)NA morfemaren maiztasun eskasa edota erabateko falta etabar arau honen estutasunaren aurka nahiko argi mintzo dira, testuinguru berebean batzutan -(e)NA eta besteetan -(e)LA aurkitzen baitigu.

Batez ere ez dirudi egia galdegai izan ezean baiezko konpletiboak beti -(e)NA morfema daramanik. Ez da batere lan nekeza galdegai ez izanik ere -(e)LA morfema daramaten konpletiboak edozein idazle bizkaitarren lanetan aurkitzea.

Hona begirada arinez bilduriko zenbait adibide:

a) Konpletiboaren alboan galdegaia ezezik galdekariren bat daramaten perpausak aipa daitezke lehenbizi, berez “baiezko” ez badira ere. Hona batzuk:

(81) Celaan jaquingodogu jangoicoac dinoala? (Viva Jesus 90).

(20) Zein kasutan den aukerako esatea eta zer markatzeko erabiltzen den zehatz erabakitzea ez da erraza. Gauza bat dago, halere, ukatu ezina: nik aztertutako testuetan (ikus bibliografia) 114 kasu aurkitu ditut honela banatuak: *jakin* 58 (erdia baino gehiago); *ezagutu*, *ezagun izan* 10; *egia izan* 5; *ikus* 4; *ez ukatu* 4; *erakutsi* 3; *zihur egon* 3; *esan* 8 (horietarik 5 Lekunarenak); *sinetsi* 2 etab. *Jakin* aditzaren maiztasun nabarmenak arazoa bide semantikoz argitzera eraman gaitzake, faktibotasunaz esate baterako. Horrek dirudi azalpen biderik aipose-na. Bada, halere, itxuraz horren aurka mintzo den zenbait testu...

(82) Nori eguño etorri lequi quion burura mesede aundi au eguingo ceus-tazula? (Añibarro 163).

(83) Zelan probau niri neuk bota eragin nebala? (Mogel 48).

(84) Da gañera, zeñek esan deutsu zuri nai ta naiez ikasi bear dogula guk Gaztelako izkuntzea? (D. Agirre 101).

(85) Nondik nora dakina hik maltzur zan denganiño hori “beste munduko” gizonen bat izan donala? (Bilbao 97).

b) Baiez kotasuna markatzen duen *ba* galdegaiaren ondoan -(e)LA konpletiboa daramatenak ere ugariak dira:

(86) Bacust enasala, ezpada lureco ar zantar billau prestuez bat (Añibarro 120).

(87) Bai, Peru, bazaut uts egin nebala (Mogel 116).

(88) Nik badakit esker asko zor deutsiedala neure gurasoi (D. Agirre 119).

c) Bestelako galdegaiaren bat izan eta halere -(e)LA konpletiboa daramaten perpausak aipa daitezke ondoren:

* * *

(89) Bati baiño geiagori entzun deusat, baserritarretan dagoala euskera garbia (Mogel 49).

(90) Berberak adierazo eban, etzala ez egiaz zorionekoa (Mogel 154).

(91) Berak esan deusku Mañasi nai leukiala emaztetzat (D. Agirre 136).

(92) Taketa alkate irten dala, orain det jakiten (Urruzuno I, 66).

(93) Oraintxe gogoratu eban sagardo barrikoa idigita itxi ebala (Bilbao 167).

(94) Denporatxua da gure familiko bi hil ebazala (Bilbao 284).

d) Txillardegik dioenez -(e)LA konpletiboa galdegai da eta orobat -(e)LAKO kausala. Zer gertatzen da biak daramatzaten ondoko perpausetan? Zein da galdegaia?

(95) Ta esaten da me iruten dabela, txito zuurra ta arte andieatakoo dalako (Mogel 126).

(96) Zuk barriz diñozu astaki bat izango dala, dongaro ianzen dalako (Mogel 18).

(97) Barregarri egoten dala erri au, diñoe alboerritakoak, leioetan ainbeste zapi euki oi ditualako (D. Agirre 21).

Egia esan Txillardegi puntu honetan maisua bera baino are maisuzaleago agertu zaigu, Altubek galdegaitik landa ere -(e)LA erabil daitekeela —esahia zertxobait aldatuz, hori bai— onartzen bait zuen (Altube 121).

4.4.2. Bazterreratze araua.

Ez da erraza beti, hitzen ordenaren arabera behintzat, galdegaiaren orapiloa lehen begiradan askatzea. Esaldi laburretan, osagarri zuzena galdegai denean gehienetan aditzaren aurrean joaten bada ere, osagarri hori konplejoagoa denean —konpletiboa denean esate baterako— eskuinera, perpausaren muturrera pasatzeko joera handia du.

Joera honen berri ere ematen digu Altubek:

“Hay que reconocer que tratándose de oraciones con miembro inquirido largo y complejo, aun en el lenguaje hablado se infringe con frecuencia la regla establecida cuando el verbo de la oración expresa ideas tales como *decir, contestar*, etc.; así es muy frecuente oír frases como las siguientes:

a) =Amak *esan dit* “biyar lan asko daukala eta ezin etorri al izango dala” (Altube 11).

* * *

Idatziari dagokionez eta galdegaiaren “arauari” kasu gutxi eginaz —gutxiegia behar bada gramatika arauemaile, edota asmatzaile, zenbaiten gustorako—, konpletiboa, batez ere konpletibo luzea, aditzaren ondoan ematea aurrean ezartzea bezain normala edo are normalago dela esan behar da.

Joera hori gainera, agian, beste hizkuntzetan ere gertatzen omen den arau zabal baten ondorio baizik ez da. Eta “omenka” ari naiz bestek esandakoan fidaturik mintzo nait naiz, aise uler daitekeenez:

“(…) esto puede explicarse por un principio general que parece afectar a todas las lenguas del mundo y que enunciaré de la manera siguiente:

Las construcciones autoincrustadas tienden a convertirse en ramificadas.


Las construcciones autoincrustadas son, por ejemplo, las del tipo $[_0X [_0Y] Z]$ y ramificadas son las del tipo $[_0X [_0Y]]$, o bien del tipo $[_0Y] [_0X]$.

(…)

Ese principio puede también verse como una tendencia a poner al final de la oración aquellos elementos que contienen más elementos léxicos” (D’Introno 132-3).

Izen egokiagorik asmatu arte —eta, egia, ez dut uste zailegi denik— “bazterreratze araua” izenaz ezagutu dezakegun lege honen eraginaz sujetoa eta

aditzaren artean kokaturiko perpaus konpletiboa perpausaren azken bazter-
rera lekualdatzen da:



Adibidez:

(98a) Agure ta atsoak esaten euskuen *kredo barria* ikasten genduala (Mogel 112).

Lekualdaketarik gabe:

(98b) Agure ta atsoak *kredo barria* ikasten genduala esaten euskuen.

(99a) Alperrik da esatea osoro ta geiago eziñean maitetuten dituela euren umeak (D. Agirre 115).

Bazterreratze aldaketarik gabe:

(99b) Alperrik da euren umeak osotoro ta geiago eziñean maitetuten dituela esatea.

* * *

Konpletibo asko —gehienak?—, gorago esan bezala, gisa honetakoak dira eta adibideen zerrenda batere nekerik gabe eta nahi adina luza daiteke.

(100) Ezda asco aobetian esatia (...) *pecatu mortaleco ocasinoe urre-
cuac diriala* (F. Bartolome 44).

(101) Oni eranzuten badeutsazu, esango dot abadeok baino euskera geiago dakizula (Mogel 121).

(102) entzun dabenien radixo ori ekarteko asmuetan gabizela (Arrizabalaga 70).

(103) Uste izango eban Peru txarri-jana egosten egoala (Bilbao 44).

Bazterreratze delako arau nagusi honi antzeman orduko badira, sakontze lanei tarte berezirik eskaini gabe ere, berehala batean eta besterik gabe esan daitezkeen zenbait gauza:

a) Ezin da, erraz-erraz eta bestelako frogarik gabe, bazterreratze lege hori joskeran sarturiko erdarakada denik esan. Izan ere, erdaraz osagarri zuzena aditz ondoan doa normalki, bakuna nahiz konplejua izan: “He dicho eso”, “He dicho que es tarde”. Euskaraz, berriz, osagarri bakuna eroso dago bere aditz aurreko lekuan, konplejua erraz muturreratzen den bitartean:

(104) Antoinec beste aimbeste dino (F. Bartolome 174).

(105) Dinot, bada, piestara duazan guztiac, diriala ainbat onduen apaindubac (F. Bartolome 51).

b) Askotan, arau nagusiagoak tarteko direla, bazterreratze hau ezinezko gertatzen da. Esaterako, eta adibide hutsa da, konpletiboaren nagusia hitz anaforikorik gabeko erlatiboa denean —hots, “lege zaharreko” edo “lege garbiko” erlatiboa denean— Leizarragak konpletiboa erlatiboaren aurrean ematen du:

(106) (...) Sadduceuac, resurrectioneric eztela dioitenac (Mt 22,23).

(107) Gucaz eguinen ciradela preparatu eta ordenatu cituen obra onez (Sar 29).

Erlatiboetan, gisa denez, erlatiboaren morfema daraman aditzak hartzen du bere eremuaren azken lekue eta konpletiboa, ezin bestean, aurrean doa (21).

* * *

c) Zenbaitetan bazterreratzen dena ez da perpaus osoa, konpletibo osoa gure kasuan, haren zati bat baizik, lekualdatzea perpaus nagusiaren gaindi esaldi osoaren muturrerainokoa gertatzen delarik:

(108) Ametsa zala ezan laikan, aiñ ederto jokatzia (A. Onandia, in Arrizabalaga 11).

d) Konpletiboak ezezik, beste perpaus eta sintagma konplejuak ere arau berberaren pean dabilta (eta konplejotasuna luze-laburretik bezala pisu semantikotik ere etor daiteke).

Konparatiboetan, esate baterako, txertaturiko perpausetik geratzen diren puskak —eta barka espresioa— perpaus nagusitik kanpora eman ohi dira askotan.

(109) Egun bigarreneko esango dózu, oiñetako orreek obeagoak direala zuen zapata asmo barrikoak baino (Mogel 78).

Besteak beste direla, ikus dezagun zer gertatzen den konpletiboa eta haren barruan txertaturiko konparatiboaren artean. Hona txertakuntza:

Oiñetako orreek [zuen zapata asmo barrikoak baino] obeagoak dira.

(21) Adibideka ari naizenez, hor uzten dut arazoa, baina izango ditu bazterreratze arau honek bestelako mugak ere noski.

Eta hortik gero txertatuaren lekualdatzea. Lekualdatze hau, ez da esan beharrik, aski maiz gertatzen da.

Gauza bera gerta daiteke perpaus baten, are perpaus txertatu baten, sintagmaren bati dagokionez:

(110) Neuk emoten deusut *berbea* urtengo dogula *lauzuri bere pagau baga* (Mogel 44).

(111) Badakit erdiz erdi artuten zaituala *ipuin onen esangureak* (Mogel 65).

(112) Esan iaku onuntz etorri dala *barberu ondo apaindu bat* (Mogel 133).

(113) Au gaiti pensau dot, azartu biar dodala, *nasteco dantzeen bereno madadicatuba azaldeetara* (F. Bartolome 10).

(114) Barregarri egoten dala *erri au*, diñoie alboerritakoak (D. Agirre 21).

* * *


Horrelako zerbait gertatzen da F. Juan de Zumarragaren testu zahar-
ren zenbait pasartetan:

(115) Cerrren mylla bider gueyago dala *dan vaño* esango dabeen (Zumarraga 10).

(116) Mjlla ducat bidalduco ditugula *urte onetan* njc uste (Zumarraga 11).

(117) Obato lagunetan caytuela *munsarasco seme lealoc* ençuten dot (Zumarraga 12).

Testu hau argitara eman dutenek ondo azpimarkatu dutenez, konpleti-
boa aditzaren aurrean doa. XVI mendeko lekuko zahar honetan, beraz, ez da
gertatu aipaturiko konpletiboaren lekualdatzea; bai, ordea, konpletiboaren
barnean sintagma batena (azpimarratu dudana, hain zuzen), hau da, sintag-
ma horiek perpausaren azken muturrera ez bada, beren eremuarenera behint-
zat mogitu dira. Eta hiru testuetan, hain justu, gauza bera gertatzen da. Ikus
azkenaren eskema:



4.4.3. *-(e)N menperatzailea: anbiguotasun kasu bat. Erlatiboa eta izenaren osagarria.*

Demagun honako testua:

(118) Ez da gatz igarten azeriak nahi ebana (Bilbao 36).

Perpaus hori bi eratara uler daiteke. Bata, normalena eta testuan duena, erlatiboari dagokiona da: “No es difícil adivinar lo que quería el zorro”.


Baina bestera ere uler daiteke, menpekoa alegia konpletibotzat hartuz: “No es difícil adivinar que el zorro (lo) quería”.

* * *

Axalean berdinak diren egitura hauek sakonean aski diferenteak ditugu. Non dago aldea? Bietan *-(e)N* perpausa isilpean gorderiko izen baten osagarria da, izenlaguna. Erlatiboaren kasuan izen nagusi hori menpekoan ere agertzen da biak, nagusia eta menpekoan dagoena korreferenteak direlarik.

Ez da gatz igarten “gauza” —azeriak “gauza” nahi eban (22).

Bi “gauza” horiek errealitate berbera adierazten dute. Ezezkoa alde batera utziz eta gauzak erosoago azaltzeko iraganetik orainaldira pasata hona perpausaren eskema:



⇒ azeriak nahi duen gauza (erlatiboaren izenaren elipsia: beharrezkoa).


⇒ azeriak nahi duenA (izen nagusiaren elipsia: aukerakoa).

(22) Hemen, eta gerokoetan ere gutxi gorabeheraka ari naiz, noski, isilpeko izena argitara ekartzekoan, ezinezkoa bait da zein izen den zehatz-mehatz jakitea. Gutxi gorabehera zein den erabakitzeak, ordea, ez dirudi oinarririk gabea.

Konpletiboaren kasuan, berriz, izen nagusiak ez du menpekoan korreferenterik, hots, ez dago bi izen korreferenteren arteko erlatibotasunik:

Ez da gatz igarten azeriak hori nahi eban berriA (23).

Hona, beraz, eskema, aipaturiko aldaketak gogoan harturik:



⇒ azeriak hori nahi duena (izen nagusiaren elipsia: aukerakoa).

⇒ azeriak nahi duena (menpeko izenaren elipsia: aukerakoa).

* * *

Bietan, beraz, menpeko perpausa isilpeko izen nagusi baten osagarria da. Baina erlatiboan izen hori menpeko perpausean ere ageri da, osagarri zuzen bezala, biak korreferente direlarik. Konpletibo edo osagarri soilean, berriz, izen nagusiak ez du menpeko perpausean korreferenterik eta han, osagarri zuzen bezala, beste izen bat ageri da.

Eman dezadan beste adibide bat, neronek asmatua, gauza zehatzago azaltzeko: “Esan duzuna entzun dut”.

Hona lehen adiera, erlatiboarena:

AlbisteA entzun dut –*albisteA* esan duzu

⇒ [albisteA esan duzu] -N albisteA entzun dut

⇒ Esan duzun albisteA entzun dut
“He oído la noticia que has dicho”.

(23) “Berria” diot isilpeko izena argitara ekarriz. Ez dakit hori den egokiena, “albisteA” edo antzekoren bat ere izan bait daiteke. Gazteleraz “el hecho” izango litzateke.

⇒ Esan duzunA entzun dut
 “He oído el/la/lo que has dicho”.

Hona bigarren adiera, osagarri soilarena, erlatiborik gabea:

AlbisteA entzun dut –gezurra esan duzu

⇒ [gezurra esan duzu] -N albisteA entzun dut

⇒ Gezurra esan duzun albisteA entzun dut (24)
 “He oído la noticia de que has dicho mentira”.

⇒ Gezurra esan duzunA entzun dut
 “He oído (el/la/lo de) que has dicho mentira”.

⇒ Esan duzunA entzun dut
 “He oído que lo/la has dicho”.

Erlatiboan ezin daiteke beste IS eman, nagusiarena berbera bait da eta isilpean utzi behar da derrigor:

X esan duzun X entzun dut ⇒ esan duzun X entzun dut.

Eta gero, nahi bada, nagusiarena ere isilpean utzi daiteke, mugatzailea -(e)N morfemari pasatuz:

esan duzunA entzun dut.

Konpletiboan, berriz, menpekoaren IS eta nagusia diferenteak dira:

X esan duzun Y entzun dut (25).

* * *

Eta gero, nahi bada, izen nagusia isilduz:

X esan duzunA entzun dut

Eta gero, nahi bada, menpekoaren izena isilduz:

esan duzunA entzun dut.

Horra hor konpletibo soilaren eta konpletibo erlatiboaren arteko diferentzia. Horregatik ez zait egoki iruditzen konpletiboen -(e)NA morfemari erlatibo deitzea (26), hor ez bait dago erlatiborik.

(24) Egitura honen froga Lardizabalen ondoko testuan ikus daiteke: “Artu zutenean San Pablo urreratzen zitzayen albista” (Lardizabal 221).

(25) Edo jeneralogo:
 erlatiboetan: [... X ...] -(e)N X
 osagarri soiletan: [... X ...] -(e)N Y.

(26) Ikus TAV 100. Egia da halere, egileak berak ohartarazi zidanez, testu horretan *relativo* hitza komatxoaren artean ematen dela.

Eta hau dena asmaturikoa ez dela idazle bat eta beraren bi testu hauek froga dezakete:

(119) Egia da, dinoienez, duende zareana? (Bilbao 195).

Perpaua hau zalantzarik gabe konpletiboa da: “Es verdad que eres un duende?”

(120) Egia zan inotsena (Bilbao 225).

Goikoa bezala konpletiboa balitz —eta teoriari izan daiteke—: “Era verdad que les decia”.

Baina erlatibotzat hartuta —eta hala da testu horretan—: “Era verdad lo que les decia”.

Egitura bera, hortaz, bi adieretan dokumentaturik dago: (119) perpau-sean osagarri soila dugu eta (120) adibidean osagarri erlatiboa (27).

Diferentzia bera eta azkenean anbiguotasun bera gerta daiteke, zenbait aditzekin eta zenbait kasutan, partitiboan:

(121) Eleizpean egozan hareik ez eben usmau be “Txinpasek” inotsenik (Bilbao 81).

Hemen “lo que les decia” da, baina “que les decia” ere izan daiteke (28).

BIBLIOGRAFIA ETA LABURPENAK

ADOAINGO ESTEBAN: José María Satrústegui, *Adoaingo Esteban agurgarriaren esku-iskribu bat* (FLV 29, 1978, 299-306).

ALTUBE: Altube'tar Seber, *Erderismos* (Bilbo, 1975²).

ALTUNA I: Francisco María Altuna Bengoechea, *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación* (Mensajero, Bilbao, 1979).

ALTUNA II: Patxi Altuna, *Fray Bartolomez puntu batzuk* (Euskera, 1981, 367-377).

(27) Anbiguo gerta daiteke, baitare, Iztuetaren beste testu hau: (...) nic daquidana ceurchoc / jaquingo dezu (Iztueta 65) (que yo lo sé / lo que yo sé).

(28) Honenbestez esana dut -(e)NA eta -(e)NIK morfemetan -(e)N menperatzailea (noiz osagarri soila noiz, izen korreferenteak direnean, osagarri erlatiboa) gehi -A mugatzailea edo -IK partitiboa dugula. Gauza bera ote -(e)LA = -(e)N gehi -LA?

Esan daiteke, baitare, -(e)N-A konpletibatzailean isilpean geratu den izenak (berri, albiste...) emango ligukela konpletibatzaile hori aukerako zein kasutan den erabakitzeko bidea.

- ANIBARRO: A. Fr. Pedro Antonio Añibarro, *Escu-Librua, ta berean egu-neango cristiñaiú-cereguñác* (Hordago, 1978).
- ARRIZABALAGA: Juan José Arrizabalaga, "*Markiña zarra kontu kontari*" (Ermuko Onandia-argitaldia, 1978).
- AXULAR: Pedro Axular, *Gero* (Jakín, Oñati, 1976).
- AZKUE I: Resurrección María de Azkue, *Morfología Vasca* (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969).
- AZKUE II: Resurrección María de Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969).
- BARANDIARÁN: J. M. de Barandiarán, *Obras completas, II* (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973).
- BILBAO: Félix Bilbao, *Ipuin barreka* (E. F. A., Arantzazu, 1973).
- BORDA: Pierre Lafitte, *Les hexamètres de B. Borda* (FLV 30, 1978, 493-523).
- D. AGIRRE: Domingo Agirre, *Kresala* (Arantzazuko frantziskotar argitaldaria, 1967).
- DEIA: Egunkaria.
- D'INTRONO: Francesco D'Introno, *Sintaxis transformacional del español* (Cátedra, Madrid, 1979).
- DV 1664: José María Satrustegui, *Documentos vascos del año 1664 en un proceso matrimonial de Oyarzun* (FLV 33, 1979, 529-548).
- F. BARTOLOMÉ: Aita Prai Bartolomé Santa Teresa, *Euskal-Errijetaco Olgueeta, ta Dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba* (Hordago, 1978).
- GREVISSE: M. Grevisse, *Le bon usage* (Gembloux-Duclout, 1964⁷).
- IZTUETA: José Garmendia Arruebarrena, *Iztueta'ren Olerkiak* (Kardaberaz Bilduma, Tolosa, 1978).
- LAFITTE: Pierre Lafitte, *Grammaire basque (Navarro-Labourdin littéraire)* (Bayonne, 1962).
- LARDIZABAL: F. I. de Lardizabal, *Testamentu Berriko kondaira edo historia* (Bilbao, 1957).
- LARRAMENDI: Manuel Larramendi, *El imposible vencido* (Hordago, 1979).
- LEIZARRAGA: Joannes Leizarraga, *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu berria* (Hordago, 1979).
- LEKUONA I: Lekuona'tar Manuel, *Idaz-lan guztiak L. Aozko Literatura* (Kardaberaz bilduma, Donostia, 1978).

- LEKUONA II: Manuel Lekuona, *Bi antzerki ta itzaldi bat* (Itzaropena, Zarautz, 1965).
- LEKUONA III: Manuel Lekuona, *Gero*⁴, Aitzin-solas (Zarautz, 1954).
- LIZARRAGA I: J. Apecechea Perurena, *Tratado sobre el matrimonio, de Joaquín de Lizarraga (año 1782) (I)* (FLV, 29, 1978, 339-360).
- LIZARRAGA II: José María Satrústegui, *Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes* (FLV 23, 1976, 205-236).
- MOGEL: Juan Antonio de Moguel, *Peru Abarka* (La Gran Enciclopedia Vasca, 1970).
- MUJIK: José Antonio Mujika, *Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragan* (Euskera 25, 1980, 597-629).
- RS 1596: Julio Urquijo, *Refranero vasco I y II* (Añamendi, Zarautz, 1964).
- TARTAS: Juan Tartas, *Ontsa hiltzeko bidea* (Jakín, Oñati, 1975).
- TAV: Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos* (Minotauro, Madrid, 1964).
- TVTE: Manuel de Lekuona, *Textos vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella* (FLV 15, 1973, 369-390).
- TZ: *Teatro Zaarra* (Auspoa, Tolosa, 1965).
- TXILLARDEGI: Txillardegi, *Euskal Gramatika* (EV, San Sebastián, 1978).
- URRUZUNO I: Pedro Migel Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak* (Auspoa, Tolosa, 1965).
- URRUZUNO II: Pedro Migel Urruzuno, *Iru ziri* (Auspoa, Tolosa, 1965).
- URRUZUNO III: Pedro Miguel Urruzuno, *Euskalerritik zerura* (Auspoa, Tolosa, 1961).
- VILLASANTE I: Fr. Luis Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta* (E. F. A., Oñate, 1976).
- VILLASANTE II: Fr. Luis Villasante, *Palabras vascas compuestas y derivadas* (E. F. A., Oñate, 1974).
- VJ: L. M., *Un catecismo vizcaíno del siglo XVII* (BAP, 1954, 85-95).
- XVII mend. oler.: José María Satrústegui, *Poesía sentimental en dialecto vizcaíno (s. XVII)* (FLV 28, 1978, 63-65).
- ZUMÁRRAGA: Antonio Tovar, Enrique Otte y Luis Michelena, *Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga* (Euskera, 26, 1981).